

1988-XI-26

Nafarroako Larraun bailaran eta Uitziko Kontzeju-etxean egin du Euskaltzaindiak, 1988ko azaroaren 26an, euskaltzain osoen hileroko batzarrea. Arratsaldeko 4etan bildu dira: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, P. Altuna, J. A. Arana, P. Charriton, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta P. Zabaleta, euskaltzainak; J. L. Lizundia idazkari-ordea eta J. J. Zearreta ekonomia eragilea, P. Goenaga Gramatika batzordeko idazkaria, urgazleak; eta J. Lavin, Literatura batzordeko idazkaria.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Knörr, J. M. Lekuona eta A. Zavala euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Urriko batzar-agiria onartu da.

J. A. Arana-Martija euskaltzain berriari ongietorria eman dio L. Villasantek.

J. Carrasquedo urgazlearen hil-berria eman du J. San Martinek, haren lan eta euskal arloko ekintzen aipamena eginez.

### 1989ko lanen kronograma

Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusitik hartutako gutunaren berri eman da, Euskaltzaindiak 1989rako lan-programa bakoitzaren barnean atal desberdinak burutzeko epe edo kronograma delakoaren berri zehatza eskatzen bait du. Lan-programa bakoitzean, bestalde, urtez urte noraino heltzeko asmoa dagoen azaltea ere aipatzen da.

*Gramatika.* P. Goenagak aditzera eman du, koordinazioaz jadanik hasia den lanaren jarraipena izango dela, bera idazkari den Gramatika batzordearen egitasmoa 1989rako batipat, lehen zirriborroa behintzat burutua egon daitekeelarik urtearen azkenerako.

Atal horretan jorratuko diren gaiak banaturik daude dagoeneko lankideen artean, bakoitzak zenbait juntagailu hartu dituelarik aztergai.

Orain arteko moduan egingo dute batzorde lana, informatizaziorako tresnen erabilpenaz behar bezala jabetu arte, orduan beste prozedura emankorragoren bat

erabiltzeko moduan egongo badira ere. Eta juntagailu hauek "hitzak" diren aldetik OEHrekiko lotura edo hartu-emanen baliabidea mugatu beharra aipatu du azkenik.

*Dialektologia.* Batzorde honen idazkaria den X. Videgainek ezin etorria adierazi du, 1989rako lan programa bidaliz denbora berean. Helburu nagusia den Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren esparrua ahantzi gabe, ekintza horren osagarri diren lau egitasmo berezi aipatzen ditu. a) Dialektologiari buruzko bibliografia berezituaren oinarriak finkatzen jarraitzea. b) Desagertzen ari diren langintza zaharren lexiko bilketa. c) Hunkipen-areetan hil zorian dauden euskal mintzairaren aldakinak biltzeko programa eskaintzen du, zientifikoki non, zer eta nola lan egin erakusteko. d) Gero eta gehiago senditzen du batzordeak, bai Atlaserako erabilitako ahozko dokumentuen soportea fisikotzat, eta bai berorien edukina baliatzeko ahalak eskaintzen dituen euskal patrimonioaren osagai, fonoteka baten beharra.

Esandakoen zehaztasunak eman ditu gero lan-programaren kronograma finkatuz.

*Onomastika.* J. L. Lizundia, batzordeko idazkariak, eman du datorren urteko aurreasmoen berri. Nafarroako Herri Izendegiaren hirugarren eremuko zerrenda amaitzeaz bestalde, Erdi Aroko dokumentuen iaz hasitako biluzketarekin jarraitu nahi da. Horretarako badago Euskal Unibertsitateko Euskal Filologia, Geografia eta Historia Fakultateekin izenpeturiko hitzarmen bat.

Egitasmo berrien artean, Euskal Herriko Udal mailan egin nahi den toki-izen txikien bilketa lana behar bezala egiteko aholkuak eman eta bateratzea legoke. Abiatuak dira jadanik zenbait tokietan eta ondore onik ekar lezakeela uste du batzordeak, behar den seriotasunez egingo balitz. Arau batzu emateko eskaintza eginen zaie.

Lizarrako hiriaren foruak 900 urte betetzen duela- eta Onomastika Jardunaldiak bertan antolatu nahi dira, inguruko toponimia eta testuen azterketa gai nagusitzat harturik.

*Literatura.* Eskuarteke lanari jarraituz, Beskoitzeko Lizarragaren estiloa beste idazle batzurekin konparatu nahi da. Apokalipsis grekozko orijinalarekin parekatuko dute, beste zenbait autore ere ikusiz. Lizarraga beraren obra ordenagailuz aztertzen ari denik badagoela, esan du Krutwig jaunak, eta harremanetan sartzeari komeni da.

Prosazko hizkuntzari buruz, Isokratesen testu batzu latinera nola aldatu ziren ikusi, eta handik euskarara nola datozen aztertuko dela, esan du batzorde idazkariak. Prosa klasikoa eta prosa biblikoa ere aztergai daude helburuetan.

Lanen argitalpenak kezkatzen du F. Krutwig batzordeburua.

*Herri Literatura.* A. Zavala batzordeburua eta J. M. Lekuona Irun sariaren epailetan daudenez batzar honen une berean, ezin etorria adierazi dute eta datorren urterako asmoen berri idatziz bidali ere.

Batzorde gaztea da, 1987an sortua, eta bi ekintza nagusi burutzen ditu: ikerlana eta bilketa lana. Ikerketari dagokionez, 1989rako gaia "Kontarazko herri-

kantagintza”, izango da. Gai hau lantzeko, batzordekideez bestalde, kanpoko zenbait ikerlari eta irakaslerekin hartu-emanetan daude.

Bilketa lana ez da, noski, bertsolaritzako mundura mugatzen, eta datorren urteko asmoetan bertso-paperen “Xenpelar” saria, eta herri-umorearekiko “Fernando Amezketarra” lehiaketa daude.

Zenbait bertsolari eta gai-paratzaile kazetari bihurtzeko xedea ere aurrera eramango dute. Jadanik egunkarietan egiten duten agerpena areagotu eta herri-periodismo delako horren bidez, egundaino euskaraz pentsatzen duten pertsona hauen burubideak paperean jasotzea da helburua. Denbora eramaten duela horrek eta diru arazoa sortzen, esan dute.

### **Izendapenak**

M. Lekuona ikerketa sariaren epai mahairako, A. Irigoyen, J. M. Lekuona eta A. Muniategi izendatuak izan dira.

### **Eskuarteoak**

Akademiaren arauak Euskaltzaindian gordetzeaz mintzatu da J. Haritschelhar. Beste batzarre batean A. Zatarain urgazlearen txostena ortografia arautu gabean egina *Euskera* aldizkarian sartzea onartu bazen ere, Zuzendaritzak eztabaidatu ondoren, lan hori egileari itzultzea proposatu du, berak zuzendu dezan. P. Sala-buruk dio, Euskaltzaindiak berak argitaratzen dituenak ortografia batuan egon behar luketela, nor-berarenek libre utziz.

Ortografia arauetz ari garen bakarrik, esan da orduan.

Gaia hurrengo batzarrean eztabaidatu eta bozkatzeko utzi da.

I. Sarasola euskaltzainaren sarrera-hitzaldia abenduaren 30ean egingo da Donostian. J. San Martin Gipuzkoako ordezkariak Udaletxean egindako jesticen ondoren, Miramar jauregian izango da batzar irekia.

Abenduko batzarrean, bestalde, karguen berritzea egingo dela, aditzera eman du euskaltzainburuak, eta ez dela aurkeztuko bera orain arte zuen burutzarako. Urte asko daramatzala, alde batetik, eta eskuartearen dituen beste eginkizun batzuk bultzatzen dutela, bestetik, erabaki hori hartzera.

J. Haritschelhar jaunari proposatu dio bere izena aurkeztea, botua emango ziotenei J. Haritschelhari emateko gomendatuz. Honek ontzat emanez gomita, datorren hileko hauteskundeetarako burutzat aurkeztu du bere izena.

Euskaltzainen baitan dago orain erabakia.

Bilboko egoitzari dagokionez, Bizkaiko Diputazioak 1989ko aurrekontuetan 80 milion pezeta sartuak dituela Plaza Barriko egoitzaren birmoldaketa lanetarako, aditzera eman du Tomas Uribeetxebarria jaunak, Uitzin baitzegoen LEF

Jardunaldietan parte hartzen. Eragozpen teknikoak bideraturik, badirudi laster hasiko direla berrikuntza lanak.

Eusko Jaurlaritzak 1:25.000 mapagintzarako toponimia bilketa egingo duen lantaldeari Euskaltzaindiak gainbegirada ematea nahi du. Hizkuntz Politikarako idazkariak deiturik, A. Irigoyen, E. Knörr eta J. L. Lizundia izan dira bertan. Onomastika batzordearen esku uzten da gai hau garatu eta finkatzea.

### LEF. X. Jardunaldiak

Lexikologi Erizpideak Finkatzeko X. Jardunaldiak egin dira gaur, egun osoan zehar, Uitziko Kontzeju-etxe honetan. Nikolas Ormaetxea "Orixe" zenaren jaiot-mendeurrena ospatu nahi izan du horrela Euskaltzaindiak, hitz-elkarketari buruzko zazpigarren ekitaldian.

Bihar Euskaltzaindiak egingo duen ospakizuna irekia izango da eta "Orixe" zenaren bizia, eta bere *Euskaldunak* poeman agertzen diren adibide pertsonalak nahiz tokikoak izango dira aztergai.

Ekintza hauek Uitziko Kontzejuaren laguntzarekin eta bere babesean antolatu dira.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,*  
*Euskaltzainburua*

*J. M. Satrustegi,*  
*Idazkaria*

## ORIXEren mendeurren ospakizunez batzar irekia

Uitziko Kontzeju-etxean egin du Euskaltzaindiak, 1988.eko azaroaren 27an, eguerdiko 12etan, Nicolas Ormaetxea ORIXE euskaltzainaren mendeurrena ospatuz, bere hileroko batzar irekia. Mahaipuruan jartzen dira: L. Villasante, euskaltzainburua; J. Haritschelhar, buruordea; J. M.<sup>a</sup> Satrustegi, idazkaria; Juan Cruz Martirena, Uitziko alkatea; J. J. Ekisoain, Nafar Gobernuko Euskara Zerbitzuaren arduraduna; M.<sup>a</sup> Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkari nagusia eta Imanol Murua, Gipuzkoako diputatu nagusia. Batzar aretoan hurrengook ere badaude: P. Altuna, J. A. Arana, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Larre, J. M. Lekuona, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin, P. Zabaleta eta A. Zavala, euskaltzainak; J. M. Aranalde, M. Atxaga, R. Badiola, J. Garmendia Larrañaga, P. Goenaga, J. L. Goikoetxea, M. Itzaina, F. Ixurko, J. M.<sup>a</sup> Jimeno Jurio, J. M.<sup>a</sup> Larrarte, M.<sup>a</sup> P. Lasarte, J. L. Lizundia, L. M.<sup>a</sup> Mujika, M. Zalbide eta J. J. Zearreta, urgazleak.

J. M. Satrustegi idazkariak, bezperan egindako euskaltzainen hileroko bilkuran tratatutako gai nagusien azalpena egiten du.

Jarraian, herriko alkate jaunak uitziarren izenean, ongi etorria ematen die Euskaltzaindikoei, beste agintariei eta etorri diren ORIXEzale guztiei.

P. Altuna euskaltzainak ematen du ondoren, lehen txostena: "ORIXEk Lagundian eman zituen urteak" izenekoa. Hitzaldia luzea izanik, zatirik garrantzitsuenak irakurtzen ditu, gero, *Euskeran* testu osoa argitaratuko delarik. ORIXEren bizitzako garai horri ikerketa sakona egin dio egileak.

J. M.<sup>a</sup> Aranalde urgazleak: "ORIXEren autobiografia *Euskaldunak* poeman" txostenari ekiten dio, Nicolas Ormaetxea eta Uitzu inguruaren arteko harremanak gogoz eta sentikiro azalduz.

Azkenik, J. M. Lekuona euskaltzainak: "Pertsona herrikoien erretaula *Euskaldunak* poeman" txostena aurkezten du, modu biziz bertoko adibide ugari eskainirik.